



FIBROMIALGIA ETA NEKE KRONIKOKO NAFAR ELKARTEA

Atzera begira, suminik gabe baina borrokatzeko eta gainditzeko asmoz, gizarte honetan non oraindik ere askotan gaixotasun hauek ukatzen diren, bere bizitzako egun guztietan bere duhintasuna aurkitzeko borrokan dabiltzan Fibromialgia eta Neke Kronikoko Sindromea duten gaixoak ikusten ditugu.

Gaixotasun hauek jasaten dutenak biztanleriaren 3%a dira. Portzentaia honetatik 90%a emakumeak dira, beraz generoko gaixotasunak dira.

Estereotipo matxisten eratzek eta genero bereizketa egiten ez duten gaitzen ezberdintzeak, ikerlan, diagnostiko eta tratamendu mailaren atzerapena eragin dute.

Guzti honek, gaitz hauek jasaten dituzten gaixoen legezko kaleratzea errazten duten lege berriekin eta ondorioz hauek dakarten ondorio ekonomikekin bat, ahultasun eta baztertze egoera batetara hurbiltzen gaitu.

Oraindik zintzilik dagoen rolen aldaketarako lanak, gaixoaren errealitatean eta bere mugetan beharrezkoak diren aldaketak ez lortzea eragiten du.

Honetaz gain, gaixo gehienek arazo handiak aurkitzen dituzte lan merkatuan mantentzeko, ez direlako beren errealitate pertsonalari adosten diren adaptazio denborak eta ekintzak onartzen dituzten politikak existitzen.

Guzti honek gehiegizko menpekotasun ekonomiko eta soziala dakar eta berarekin bat gauzaez eta gizarte eta familiarekiko zama sentimenduak.

Eskatzen dugu:

1. Emakume hauen mantentze aktiboa eta etikoa errazten dituzten estrategiak.
2. Premiaz gaitz hauen baremoa ezartzea hauei duhintasuna emateko.
3. Gaitz hauen zailtasunaren eta generoaren perfilaren ikuspegitik estudio bat egitea. Gure elkartetik ikerketa tekniko bat egin gabe, inkapazitate prozesu gogor eta nekatsuetan, gizonezkoen inkapazitate absolutoen portzentaiak judizialki emakumeenak hirukoizten dituztela ikusten dugu. (berriz ere generoz diskriminatuak ikusten gara)

Proposatzen dugu:

1. Gaitz hauen benetako egoera ezagutzea, desberdintasunak eta generoz diskriminatuak ez dauden beste gaitzekin konparatuz, ditugun zailtasunak etetea.
2. Eremer desberdinetan bizi kalitatea hobetzea; pertsonala, lanean, familian, gizartean, etab.
3. Bere bizitzan emakumeen osasun integrala sustatzea.
4. Lan politikak gaitz hauetara egokitzea.



FIBROMIALGIA ETA NEKE KRONIKOKO NAFAR ELKARTEA

5. Gure menpekotasun errealitatetik, beste gaitz batzuk bezela barematzea. Bai ezgaitasunentzat nola desgaitasunentzat ere.

Gogorarazi nahi dizkizuegu gure parlamentuan 2013ko Urriaren 8an onetsi ziren akordioak. (Bere ematea egiten dugu)

Esan behar dugu gure elkartearen gehiengoa emakumeak direla eta guztiz emakumeek kudeatzen dutela, hala ere badaude elkartean gogotsu lan egiten duten gizonak ere, beraz honek genero lana egiten du.

Gaitz hauek jasaten ditugunok argi dugu zeintzuk diren gure behar eta lehentasunak.

Lehentasun hauekin, Fibromialgia eta Neke kronikoko Sindromeko nazioarteko egun honetan, ahotsa altxatzen dugu eta gaitz hauen erabileran eta hobekuntzan erantzunkide izateko erronka onartzen dugu.

Horretarako Gaixoen Erakundeetan mintzaide bezala onartuak izatea eskatzen dugu eta beste gaitz batzuekin gertatzen den bezala; errespetua, koheretzia, erantzunkidetasuna, kalitatea eta Sistema Publiko eta Sozialan sarrera osoa exijitzen dugu.

Dagoeneko pasatu da aitzakien denbora, iritsi da ERRESPETUAREN eta DUHINTASUNAREN ordua.

IRUÑA 2016ko Maiatzaren 12an, FRIDA.

Sinatua:

FRIDAKo zuzendaritza batzordea.